



## BOZERAMAILEEN BATZORDEAREN AKTA

## ACTA DE JUNTA DE PORTAVOCES

2021eko ekainaren 21ean, goizeko 11:00etan, egindako eta honako pertsona hauek osatutako Bozeramaileen Batzordeak:

Jon Iraola  
Ana Tellería  
Josu Mendicute  
Gorka Errasti  
María Isabel Fernández

Jon Iraola  
Ana Tellería  
Josu Mendicute  
Gorka Errasti  
María Isabel Fernández

Honako akordio hauek hartu zituen:

**1.- Errebal Bizirik Plataformak aurkeztutako mozioa Rialtoko postuak Errebal Plazia eraikinera eramateari buruzkoa.**

Alkateak adierazi du mozioan jasotako puntueta bat ere ez dela osoko bilkuraren esku menekoa eta, horregatik, ekaineko osoko bilkuran ez eztabaidatzea proposatu du. Eibarko PSE-EEko bozeramailea zentzu berean mintzatu da.

Bestalde, Eibarko EAJ-PNV, Eibarko EH-Bildu eta Elkarrekin-Podemos Eibar udal taldeetako bozeramaileak bat datozen mozioa osoko bilkuran aztertu behar dela esatean, eta, horregatik, testua hurrengo ohiko osoko bilkuran eztabaidatuko da.

**2.- Berdindu! Gipuzkoa zerbitzuak aurkeztutako testua sexu-askapenaren nazioarteko eguna dela-eta.**

Aho batez erabaki da testua Osoko Bilkuran irakurtzea. Era berean, Eibarko EAJ-PNV Udal taldeko bozeramaileak hala eskatuta, eta Eibarko EH-Bildu eta Elkarrekin-Podemos Eibar alderdietako ordezkariek proposamena babestu ondoren, erabaki da, salbuespen

La Junta de Portavoces, en reunión celebrada el 21 de junio de 2021 a las 11:00 horas y con la presencia de:

Adoptó los siguientes acuerdos:

**1.- Moción presentada por la Plataforma Errebal Bizirik, relativa al traslado de los puestos del Rialto a Errebal Plazia.**

El alcalde manifiesta que ninguno de los puntos recogidos en la moción son competencia del Pleno y, por ello, propone que no sea debatida en la sesión plenaria del mes de junio. La portavoz del PSE-EE de Eibar se ha pronunciado en el mismo sentido.

Por su parte, los/as portavoces/as de los grupos municipales Eibarko EAJ-PNV, Eibarko EH-Bildu y Elkarrekin-Podemos Eibar coinciden en afirmar que la moción debe ser abordada en el Pleno y, por ello, el texto será debatido en la siguiente sesión plenaria ordinaria.

**2.- Texto presentado por Berdindu! Gipuzkoa con motivo de la celebración del día internacional de la liberación sexual.**

Se acuerda por unanimidad que el texto sea leído en el Pleno. Asimismo, habiéndolo solicitado así el portavoz de Eibarko EAJ-PNV y tras respaldar la propuesta los/as representantes de Eibarko EH-Bildu y Elkarrekin-Podemos Eibar, se decide que, de



## BOZERAMAILEEN BATZORDEAREN AKTA

gisa, talde bakoitzak testuari buruzko adierazpen bat egin ahal izango dutela, testua irakurri ondoren.

Eztabaidan, Elkarrekin-Podemos Eibarko bozeramaileak esan du, aurretik adostu bezala, beste erakunde batzuek aurkeztutako testua jasoko zela, ondoren Eibarko Udalak bat egiteko. Puntu honetan, Eibarko EAJ-PNV Udal taldeko bozeramaileak adierazi du bere taldeak mozio bat aurkeztu zuela ekainaren 17an, Berdindu! zerbitzuaren testua funtsean jasotzen duena, baina, adostutakoa ikusita, bertan behera uztea erabaki du.

### **3.- Eibarko EH-Bildu udal taldeak aurkeztutako mozioa kultura-sektorea leheneratzeko eta suspertzeko.**

Plenora eramatea erabaki da.

Gai-zerrendako puntuez gain, alkateak ekainaren 23an Lizarrako dultzaineroen harreran omenduko diren pertsona eta erakundeen berri eman du. Alde horretatik, taldeek adierazi dute gai hau ez dela Kultura Batzordean aztertu, eta alkateak adierazi du horren berri emango diola Sailari.

Era berean, Eibarko EAJ-PNV Udal taldearen bozeramaileak eskatu du orain arte Dultzaineroen harreran omendu diren pertsona eta erakundeen izenak jasotzen dituen zerrenda bat egitea.

## ACTA DE JUNTA DE PORTAVOCES

forma excepcional, cada grupo podrá hacer una intervención al respecto, una vez leído el texto.

En el debate, la portavoz de Elkarrekin-Podemos Eibar ha señalado que, tal y como se acordó anteriormente, se asumiría el texto presentado por otros entes para la posterior adhesión del Ayuntamiento de Eibar. En este punto, el portavoz de Eibarko EAJ-PNV ha indicado que su grupo ha presentado con fecha de 17 de junio una moción en la que transcribe esencialmente el texto de Berdindu!, si bien, a la vista de lo acordado, decide retirarla.

### **3.- Moción presentada por Eibarko EH-Bildu para priorizar e impulsar el sector cultural en Eibar.**

Decide elevarse a Pleno.

Fuera de los puntos del orden día, el alcalde ha dado cuenta de las personas y entidades que van a ser homenajeadas en el marco de la recepción de los Dulzaineros de Estella del próximo 23 de junio. En este sentido, los grupos han señalado que esta cuestión no ha sido tratada en ninguna de las sesiones de la comisión de Cultura y el alcalde afirma que informará de este hecho al Departamento.

Asimismo, el portavoz de Eibarko EAJ-PNV ha solicitado que se elabore un listado en el que se recojan los nombres de las personas y entidades que, hasta el momento, han sido homenajeados en la recepción de los Dulzaineros.



## BOZERAMAILEEN BATZORDEAREN AKTA

Bestalde, Elkarrekin-Podemos Eibarko bozeramaileak gogorarazi du bere taldeak maiatzean aurkeztutako mozioa, Aerosolei eta CO2 neurgailuei buruzkoa, mahai gainean geratu zela Bozeramaileen Batzordeak maiatzaren 25ean egindako bilkuran. Horri dagokionez, Bozeramaileen Batzordean erabaki bat hartuko dela adostu da. Akordio horretan, Eusko Legebiltzarrean PSE-EE, EAJ-PNV, EH-Bildu eta Elkarrekin-Podemos taldeek sinatutako eta 2021eko apirilaren 14ko data duen erdibideko zuzenketaren edukia jasoko da.

Azkenik, Eibarko EAJ-PNV Udal taldeko bozeramaileak bere taldeak maiatzaren 13an aurkeztutako idazkia aipatu du. Bertan, eskola-kirol egokituari buruzko bileran udal-taldeek parte har dezaten eskatzen zuen eta, horri dagokionez, alkateak adierazi du bilera jada egin zela, eta eskatzaileak egokitzat jo zituen pertsonak deitu zirela. Eta aipatu du, era berean, alkatea joan zela, Kiroletako Udal Patronatuko arduradun gisa, eta Patronatuko zuzendariak ere hala egingo zuela, osasun-arrazoiengatik ezin izan bazuen ere.

Eibarko EAJ-PNV udal taldeko bozeramaileak berriz ere esan du bilera horietan talde guztiak egon behar dutela, eta alkateak esan dio kudeaketa kontua dela eta, horregatik, Gobernu Taldeari dagokiola parte hartzea. Hala ere bere eskaera behar bezala baloratuko duela adierazi du.

Eta goizeko 11:53ak izanik eta gainerako gairik ez dagoenez, Alkateak bilerari amaiera eman dio.

## ACTA DE JUNTA DE PORTAVOCES

Por otro lado, la portavoz de Elkarrekin-Podemos Eibar ha recordado que la moción presentada por su grupo el pasado mes de mayo relativa a *Aerosoles y Medidores de CO2* quedó sobre la mesa en la sesión de la Junta de Portavoces celebrada el pasado 25 de mayo. A este respecto, se ha decidido que se adoptará un acuerdo en la Junta de Portavoces en el que se recoja el contenido de la enmienda transaccional a este respecto firmada por el PSE-EE, EAJ-PNV, EH-Bildu y Elkarrekin-Podemos en el Parlamento Vasco y fechada al 14 de abril de 2021.

Por último, el portavoz de Eibarko EAJ-PNV ha hecho alusión al escrito presentado por su grupo con fecha de 13 de mayo, en el que solicita la participación de los grupos municipales en la reunión relativa al deporte escolar adaptado. A este respecto, el alcalde afirma que la sesión ya se celebró, citándose, exclusivamente, a las partes que la solicitante de la misma consideró oportunas, y que, asimismo, acudió el alcalde como responsable del Patronato Municipal de Deportes y que también lo hubiera hecho el director del Patronato, si bien no pudo hacerlo por motivos de salud.

El portavoz del grupo municipal Eibarko EAJ-PNV insiste en que en esas reuniones deben estar todos los grupos y el alcalde le ha señalado que es una cuestión de gestión y que, por ello, le corresponde participar al equipo de Gobierno, si bien ha afirmado que valorará debidamente su petición.

Y siendo las 11:53 horas, y no habiendo más asuntos que tratar, el Alcalde levanta la sesión.



BOZERAMAILEEN BATZORDEAREN AKTA

ACTA DE JUNTA DE PORTAVOCES